

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

OGASUN, FINANTZA ETA AURREKONTU SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 2/2024 Zerga premiazko araugintzako dekretua, urriaren 15koa. Onespena ematea Arabako zerga araudia egokitzeari balio erantsiaren gaineko zergan egindako zenbait aldaketetara

Ekainaren 26ko 4/2024 Errege Lege Dekretuak, zeinaren bidez luzatu egiten baitira Ukrainako eta Ekialde Hurbileko gatazken ondorio ekonomiko eta sozialei aurre egiteko zenbait neurri, eta zeinaren bidez premiazko neurriak hartzen baitira arlo fiskal, energetiko eta sozialean, balio erantsiaren gaineko zergari eragiten dioten zerga neurriak ezarri ditu.

Europar Batasunaren barruko entrega, inportazio eta eskuratze jakin batzuen kasuan, neurri horiek aldi baterakoak dira, eta uztailaren 1etik aurrera BEZaren beherapenari eusten diote, ehuneko 5eko (hazi olioak eta elikadura pastak) eta ehuneko 0ko (premia biziko elikagaiak eta oliba olioak) tasetan, 2024ko irailaren 30era arte. Urriaren 1etik aurrera, berriz, zerga tasa horiek ehuneko 7,5era eta 2ra igoko dira, hurrenez hurren, 2024ko abenduaren 31ra arte. Era berean, eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekgua, uztailaren 1etik irailaren 30era bitartean, ehuneko 0,62 izango da hazi olioen eta elikadura pasten kasuan, eta ehuneko 0 oinarrizko beharizanetarako elikagaien eta oliba olioen kasuan. 2024ko urriaren 1etik abenduaren 31ra bitartean, baliokidetasun errekgua ehuneko 1ekoa eta ehuneko 0,26koa izango da, hurrenez hurren.

Oliba oliorentzako eragiketa aplikatu beharreko zerga tasaren kasuan, oinarrizko beharizanetarako elikagai gisa finkatuko da ehuneko 4ko tasa supermurriztuan, 2025eko urtarrilaren 1etik aurrera, eta, horretarako, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua aldatu behar da. Aldaketa hori mugagabea izango da ondorio horietarako.

Maiatzaren 23ko 12/2002 Legeak onetsi zuen Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Itunak 26. artikuluan xedatzen duenez, zerga itundua da balio erantsiaren gaineko zerga. Era berean, xedatzen du salbuespen jakin batzuetan izan ezik, Estatuak une bakoitzean ezarrita dituen edukizko eta formazko arau berberak erabiliko dituztela lurralde historikoetako erakunde eskudunek.

Aurrekoarekin bat etorritik, xedapen honen xedea da Arabako ordenamendu juridikora egokitzea aipatutako ekainaren 26ko 4/2024ko Errege Lege Dekretuan hartutako zerga neurriak eta, hartara, aipatutako aldaketak txertatzea, Ekonomia Itunaren 26. artikuluan ezarritakoa betetzeko.

Aztertu da Zerga Araudiaren Zerbitzuak horri buruz egindako arau inaktuaren txosten laburra.

Horregatik, bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatuak proposatuta, Foru Gobernu Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, Arabako Zergen otsailaren 28ko 6/2005 Foru Arauaren 8. artikulua eta Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak Aldundiari ematen dizkioten eskumenak baliatuz, hau

XEDATZEN DUT

Artikulu bakarra. Balio erantsiaren gaineko zerga

Lehenengoa. Balio erantsiaren gaineko zergaren zerga tasa, Europar Batasunaren barruko elikagai entrega, inportazio eta eskuratze jakin batzuei aldi baterako aplikatzekoa, bai eta baliokidetasun errekarguaren ondorioetarako ere.

Bat. 2023ko urtarrilaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2024ko ekainaren 30era arteko indarrarekin:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 5eko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta eskuratzei:

a) Hazi olioak.

b) Elikadura pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarguaren tasa ehuneko 0,62 izango da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 0ko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta eskuratzei:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arrunt izoztuaren oreka eta ogi arrunt izoztua ere, ogi arrunta egiteko baino ez badira erabiltzen.

b) Ogi irinak.

c) Edozein animalia espezieko ekoiztako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Frutak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak, baldin eta Elikadura Kodearen eta hura garatzeko emandako xedapenen arabera produktu naturalak badira.

g) Oliba olioak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarguaren tasa ehuneko 0 izango da.

Bi. 2024ko urriaren 1etik aurrerako ondorioekin eta 2024ko abenduaren 31ra arteko indarraldiarekin:

1. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 7,5eko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta eskuratzei:

a) Hazi olioak.

b) Elikadura pastak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekarguaren tasa ehuneko 1 izango da.

2. Balio erantsiaren gaineko zergaren ehuneko 2eko tasa aplikatuko zaie Europar Batasunaren barruko honako produktu hauen entreegi, inportazioei eta eskuratzei:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arrunt izoztuaren oreka eta ogi arrunt izoztua ere, ogi arrunta egiteko baino ez badira erabiltzen.

b) Ogi irinak.

c) Edozein animalia espezieko ekoiztako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Frutak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak, baldin eta Elikadura Kodearen eta hura garatzeko emandako xedapenen arabera produktu naturalak badira.

g) Oliba olioak.

Eragiketa horiei aplikatu beharreko baliokidetasun errekaruaren tasa ehuneko 0,26 izango da.

Bigarrena. Aldatzea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretua.

Balio erantsiaren gaineko zergari buruzko urtarrilaren 19ko 12/1993 Araugintzako Foru Dekretuaren 91. artikulua Bi zenbakiaren 1. apartatuaren lehen ordinala aldatzen da (2025eko urtarrilaren 1etik aurrera izango ditu ondorioak). Aurrerantzean testu hau izango du:

“1.a Honako produktu hauek:

a) Ogi arrunta, bai eta ogi arrunt izotzuaren oreka eta ogi arrunt izotzua ere, ogi arrunta egiteko baino ez badira erabiltzen.

b) Ogi irinak.

c) Edozein animalia espezieko ekoiztako esne mota hauek: naturala, ziurtatua, pasteurizatua, kontzentratua, gaingabetua, esterilizatua, UHT, lurrundua eta hautsa.

d) Gaztak.

e) Arrautzak.

f) Frutak, barazkiak, lekaleak, tuberkuluak eta zerealak, baldin eta Elikadura Kodearen eta hura garatzeko emandako xedapenen arabera produktu naturalak badira.

g) Oliba olioak.”

AZKEN XEDAPENAK

Lehenengoa. Indarrean jartzea.

Xedapen orokor hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean, eta artikuluetan adierazitako ondorioak izango ditu.

Bigarrena. Gaikuntza.

Arabako Foru Aldundiari baimena ematen zaio xedapen orokor hau garatzeko eta aplikatzeko behar diren xedapen guztiak eman ditzan.

Hirugarrena. Batzar Nagusietara bidaltzea.

Zerga premiazko araugintzako dekretu hau Arabako Batzar Nagusiei aurkeztuko zaie, indarrean dagoen araudian ezarritakoaren arabera berretsi edo baliogabetu dezaten.

Vitoria-Gasteiz, 2024ko urriaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bigarren diputatu nagusiorde eta Ogasun, Finantza eta Aurrekontu Saileko foru diputatua

ITZIAR GONZALO DE ZUAZO

Ogasun zuzendaria

MARÍA JOSÉ PEREA URTEAGA